



“Joan behar dut”

ala

“joan behar naiz”?



Euskaltzaindiak zuzentzat dauzka biak.

Bi ereduak erabiltzen dira euskalkietan.

Ikus 113. gomendioa:

Behar izan aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin



Baina honako bide hau hobesten du
euskara baturako:

- Lanera joan behar dut.
- Ez dugu etxean geratu behar.
- Formal izan behar duzu.



Hala ere, erregimena NOR-NORI bada:

- Norbaiti mintzatu behar **natzaio**.
- Inprimakia heldu behar **zait**.
- Kasu honetan, estu-estu jarraitu behar **zaio** lege zibilari, horixe baita jabetzaren bermea.